

Donejakue bidea Euskadin

El Camino de Santiago en Euskadi



Gomendioak

RECOMENDACIONES

Planifikatu hurrengo eguneko etapa: Erromesen aterpe asko udan bakarrik irekitzen dituzte.

Komeni da Bidea bakarrik ez egitea.

Ez ahaztu dokumentazioa, kredentziala eta dirua –edo kreditu-txartela–, eta kontu handia izan baliozko objektuekin.

Eraman etapa bakoitzerako janari eta edari nahikoa eta larraldietako botika-kutxa.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Komeni da mugikorraren bateria ongi beteta eramatea.

Jarri arreta: zenbaitetan gezi horiak aurkituko dituzu, seinaleztapen ofizialarekin bat ez datozenak.

Errespetatu ingurunea eta gainerako erromesak.

Planifica la etapa del día siguiente: Muchos albergues de peregrinos sólo abren en verano.

Es aconsejable realizar el Camino en compañía.

No olvides documentación, credencial y dinero –o tarjeta de crédito– y ten cuidado con los objetos de valor.

Lleva comida y bebida suficiente para cada etapa y botiquín de urgencia.

Lleva calzado y ropa adecuada teniendo en cuenta la predicción del tiempo.

Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.

Presta atención: en ocasiones encontrarás flechas amarillas que no coinciden con la señalización oficial.

Respeta el entorno y a los demás peregrinos.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO


Gipuzkoako hiriburua atzean utzitakoan, Bidea berriz ere malkartsua izango da eta Igeldotik aurrera, paisaia kantauriar zoragarriak ikusteko aukera izango dugu berriro. Baserri bakartiak, abeltzaintzako zenbait ustiategi eta bideak topatuko ditugu landare artean; horixe izango da gure paisaia nagusia Orio herri baleazalea aurkitu arte.

Donejakue bidean tradizio handiko herria da Orio; alde zahar oso aldatua da eta bokalea, kasu honetan, zubi bati esker zeharkatuko dugu. Donejakue bidea Zarauzko etapa-amaierara hurbiltzen hasten denean, Talaimendi muinotik gora igo eta txakolina egiteko erabiltzen diren mahastiak agertuko zaizkigu; txakolina Gipuzkoako kostaldeko urre zurizat jotzen da.

Una vez se abandona la capital guipuzcoana, el Camino vuelve a recuperar su rostro agreste y, de Igeldo en adelante, vuelve a regalarnos preciosas estampas cantábricas. Los caseríos solitarios, algunas explotaciones ganaderas y los caminos que se abren paso entre la vegetación son la norma hasta que la antaño localidat ballenera de Orio, sale a nuestro paso.

Orio es otro de esos pueblos que goza de vetustas credenciales jacobeanas, con un casco antiguo en franca pendiente y otra desembocadura que, esta vez, se salvará gracias a un puente. A medida que la Ruta Jacobea se acerca al final de etapa en Zarautz, asciende por la colina de Talaimendi y aparecen las viñas que hacen posible el txakoli, el oro blanco de la costa guipuzcoana.

22,8 km 573 m 5h 30'



KMZ



GPX



Bide zatia / Tramo

Donostia/San Sebastián > Carretera Igeldo-Orio errepidea



km 0 **DONOSTIA.** Udaletxea izango da gure abiapuntua; Kontxako pasealekuan barrena, Ondarretako lorategien amaierara iristean Igeldora igotzen den errepidetik joko dugu. Eskaileretan eta auzo-bideetan gora eginez, gero eta altuera handiagoa lortuko dugu. Landare-gangapetik doan bidexka polit batek Igeldoko errepidearen ondoko aparkalekura eramango gaitu, izen bereko jolas-parkearen sarreran. Espaloitik jarraituko dugu errepidearen ondoan, eta jatetxe batera iritsiko gara; han errepidea utzi eta eskuinera joko dugu, urbanizazio batean sartzen den bidean aurrera. Handik gutxira postu xeble bat topatuko dugu; ur freskoa izaten da, eta zigilua egiaztagarria jartzeko.

km 6,5 **IGELDO.** Igeldon barrena jarraituko dugu, sakabanatutako baserrien eta urbanizazio bikien artean, itsasoak tarteka kuku egiten digula eskuineko aldetik. Erretegi bat igaro ostean, malda txiki bat igo eta bidexka batetik jarraitu behar dugu; bidexka horretan, zenbait tartetan, galtzada-arrastoak agertzen dira. Bidearen kurba batean, ezkerrean iturri bat dago, baina erne ez bagaude agian ez dugu ikusiko. Landa-turismoko etxe baten ondotik igaroko gara eta, gero, gure bidexka Orio eta Igeldo lotzen dituen errepidean amaituko da.

km 0 **DONOSTIA.** Partiendo del ayuntamiento, recorreremos el Paseo de la Concha y los jardines de Ondarreta para tomar al final de éstos, la carretera que asciende a Igeldo. Empezamos a ganar altura a lo largo de escaleras y caminos vecinales. Una bonita senda que discurre bajo una bóveda de vegetación desemboca en un parking junto a la carretera de Igeldo en la entrada al parque de atracciones del mismo nombre. Proseguimos por la acera junto a la carretera hasta alcanzar un restaurante, donde se abandona a la derecha para tomar un camino que se interna en una urbanización. Al poco pasamos un pintoresco puesto con agua fresca y sello de credenciales.

km 6,5 **IGELDO.** Continuamos por Igeldo entre caseríos dispersos y pequeñas urbanizaciones con el mar mostrándose cada poco a nuestra derecha. Tras pasar un asador subimos una pequeña cuesta y continuamos por una senda en la que a tramos afloran restos de calzada. En una de las curvas del camino a la izquierda encontramos una fuente que puede pasar inadvertida. Tras pasar junto a un agroturismo la senda finalmente desemboca en la carretera que une Orio con Igeldo.

eu es

DONEJAKUE BIDEA

CAMINO DE SANTIAGO

Kostaldekko Bidea **2** El Camino de la Costa

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

ZARAUZT

Km. 22,8 573m. 5h. 30'

UNESCO Routes of Santiago de Compostela: Camino Francés and Routes of Northern Spain inscribed on the World Heritage List in 1993

EUSKADI BASQUE COUNTRY



Donostia-San Sebastián > Carretera Igeldo-Orio Errepidea



Ikurrak - Leyenda

- | | | |
|---------------------------------------|---|--|
| Iturria Fuente | Kanpina Camping | Ospitalea Hospital |
| Atsedengunea Área recreativa | Erromesen aterpetxea Albergue de peregrinos | Medikua Servicio médico |
| Eraikin erlijiosoa Edificio religioso | Bestelako aterpetxeak Otros albergues | Farmazia Farmacia |
| Interes puntua Punto de interés | Ostatu turistikoak Alojamientos turísticos | Turismo bulegoa Oficina de turismo |
| Jatetxea Restaurante | Diru kutxa Cajero | Informazio gunea Punto de información |
| | Denda Tienda | Donejakue bideen lagunak Asociación de amigos del Camino de Santiago |



IGELDO-ORIO ERREPIDEA CARRETERA IGELDO-ORIO Km. 11,9

IGELDO Km. 6,5

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN Km. 0



Ez geratu ezagutu gabe! ¡NO TE LO PIERDAS!

Orioko alde zaharrean Donejakue bideari buruzko Interpretazio Zentroa dago. Zentroa bisitatu ostean, marinelen herri horretan lo egin behar badugu, aukera ezin hobea izango dugu portutik gertu dauden jatetxeetako batean parrilan egindako arraina dastatzeko.

En el casco histórico de Orio, encontramos el Centro de interpretación del Camino de Santiago. Después de la visita, y si vamos a pernoctar en esta población marinera no podemos dejar de probar el pescado a la parrilla en alguno de los restaurantes cercanos al puerto.



Zarauzko hondartza Gipuzkoako kostaldeko hareatza handiena da; udatiar ugari joaten dira bertara, eta surfilariek bereziki gogoko dute. Bestalde, alde zaharreko eguneko merkatuak kalitate handiko produktuak eskeintzen dizkio bisitariari.

La playa de Zarautz es el mayor arenal del litoral gipuzkoano muy frecuentado por veraneantes y especialmente apreciado por los surfistas. Por otro lado, en el centro histórico, el mercado diario deleita a los visitantes con productos de alta calidad.



Bidearen ondo-ondoan txakolinarako mahastien paisaia ederraz gozatzeko aukera izango duzu, eta ahal izanez gero, dasta ezazu mahats berdez egiten den ardo hori.


Disfruta del paisaje de los viñedos de txakoli que encontrarás junto al mismo Camino y no pierdas la oportunidad de poder probar este caldo local hecho a partir de uvas verdes que le confieren su acidez característica.



Bide zatia / Tramo

Carretera Igeldo-Orio Errepidea > Zarautz

- km 11,9 · **ORIO-IGELDO ERREPIDEA.** Errepideari jarraituko diogu eta, kurba itxi batera iristean, errepidea utzi eta eskuinaldean aurkituko dugun galtzada zaharretik joango gara, Aganduru baserria iritsi arte. Berrito ere asfalto gainetik goazela, Orioko hondartzara doan errepidera iritsiko gara; errepidea zeharkatuz gero, errepideak egiten duen kurba bat saihesteko aukera emango digun lasterbidetik behera joko dugu. A-8 autopistaren azpitik kontu handiz igaro ostean, aldapa handi bat agertuko zaigu eskuinaldean eta, aldaparen bukaeran, San Martin ermita.
- km 14,7 · **ORIOKO SAN MARTIN ERMITA.** Ermita atzean utzi eta beherantz abiatuko gara; erromesen aterpetxearen ondotik igaro behar dugu. Orio herri xarmangariaren alde zaharrera iritsi arte behera egingo dugu; Kale Nagusitik sartuko gara, eta San Nikolas elizaren ondoan bira egin eta plazara iritsiko gara, portuaren ondoan.
- km 15,8 · **ORIO.** Eskaileretatik N-634 errepidera iritsiko gara eta ibaia zeharkatzeko zubia igaroko dugu; ibaiaren ondotik jarraitu eta hainbat eraikinen aurretik pasa beharko dugu. Jatetxe baten paretik pasa ondoren, ibaiaren ezkerreko aldeko erretetik doan errepidea zeharkatu eta San Pablo ermitara helduko gara. Lehen aipatu dugun errepide horren gainean, mendi-hegalaren erdialdetik doan bidetik joanez gero A-8 autopistaren azpitik igaroko gara eta Oriobarzar hondartzaren ondoan dagoen gazteen aterpetxe batera iritsiko gara.
- km 17,9 · **ORIBARZAR HONDARTZA.** Auzo bidetik goazela, ezkerretara jo behar dugu baserri pare baten ondotik, eta txakolina egiteko mahastien tartetik gora eginda, kanpinaren ondoan bidegurutze batera agertuko gara. Ikuspegi zoragarriak ditugula, errepidetik egingo dugu aurrera, baina errepidea utzi eta eskuinetara jo behar dugu desbideratze batean; hortik, berehala helduko gara Zarautz herrira, Nafarroa kaletik.
- km 22,8 · **ZARAUTZ**



- km 11,9 **CARRETERA ORIO-IGELDO.** Seguimos por la carretera y al llegar a una curva pronunciada, la dejamos para tomar a la derecha una antigua calzada que nos conducirá hasta el caserío Aganduru. Por asfalto de nuevo, llegamos a la carretera que se dirige a la playa de Orio, la cual cruzamos para descender por el atajo que nos evita una curva que realiza la carretera. Pasamos bajo la autopista A-8 e inmediatamente superamos a la derecha un fuerte repecho que culmina en la ermita de San Martín.
- km 14,7 **ERMITA DE SAN MARTIN DE ORIO.** Pasada la ermita iniciamos el descenso y al poco pasamos un albergue de peregrinos. Seguimos descendiendo hasta el casco histórico de la encantadora localidad de Orio, entrando por la Kale Nagusia (Calle Mayor) y girando junto a la iglesia San Nicolás, para llegar a la plaza, junto al puerto.
- km 15,8 **ORIO.** Por unas escaleras accedemos a la carretera N-634, para cruzar el puente que salva la ría, y seguir junto a ella, pasando por delante de varias edificaciones. Al pasar frente a un restaurante, atravesamos la carretera que discurre por la orilla izquierda de la ría y llegamos a la ermita de San Pablo. Por un camino a media ladera por encima de la carretera antes mencionada, se pasa bajo la autopista A-8 para llegar a un albergue juvenil junto a la playa Oriobarzar.
- km 17,9 **PLAYA ORIBARZAR.** Seguimos a la izquierda por camino vecinal junto a un par de caseríos ascendiendo entre viñedos destinados a la producción de txakoli, hasta llegar a un cruce junto al camping. Continuamos por la carretera mientras disfrutamos de las espléndidas vistas y la dejamos en un desvío a la derecha para entrar en Zarautz al poco por la calle Nafarroa.
- km 22,8 **ZARAUTZ**



Kontuan hartu beharrekoak: A TENER EN CUENTA

- Donostiatik Oriora bitarte, Bidearen inguruan oso iturri gutxi dago; beraz, kantinplora ongi betetzea komeni da.
- Entre Donostia-San Sebastián y Orio apenas encontraremos alguna fuente junto al Camino por lo que conviene llenar bien la cantimplora.
- Igeldotik Oriora doan errepideko zatian kontu handiz ibili behar da, batik bat AP-8 autopistaren azpitik igarotzen garenean, Orioko sarreran.
- Conviene extremar la precaución en el tramo de la carretera de la carretera de Igeldo a Orio sobre todo, en el paso bajo la autopista ta AP-8, a la entrada de Orio.



Telefono interesgarriak TELÉFONOS DE INTERÉS

Donostiako Turismo Bulegoa Oficina de Turismo de Donostia-San Sebastian	943 481 166
Orioko Turismo Bulegoa Donejakue Bideko Interpretazio Zentroa Orion Oficina de Turismo de Orio Centro de Interpretación del Camino de Santiago en Orio	943 835 565
Zarauzko Turismo Bulegoa Oficina de Turismo de Zarautz	943 830 990
Donejakue bideen lagunen elkarteak Asociación de Amigos del Camino de Santiago	943 427 281
Larrialdiak Emergencias	112 SOS DEIAK

www.euskaditurismo.eus

